

# HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA:

Eskolagabetzea  
eta eskolara ez  
agertzea ezabatzea  
Bizkaiko Lurraldean





Programa hau egiten parte hartu dutenak:

- 1** HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA:  
(Bizkaiko Lurraldeko Hezkuntza Eskuordetza)
  - Inmaculada Cereceda
  - Almudena Gabiola
  - Candi Hernández
- 2** BIZKAIKO FORU ALDUNDIA:  
(Gizartekintza Saila)
  - Alazne Madinabeitia
  - Dolores Menchaca
  - Nagore Zubiaur
- 3** EUDEL:
  - Dorleta Goiburu
  - Manuela González
  - Javier Ruiz
  - Jone Unzueta
- 4** JUSTIZI, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA:
  - Kontxi Gabantxo
- 5** BIZKAIKO OSABIDE HEZKUNTZARAKO PARTZUERGEOA:
  - Mikel Ubillos

GAIZKA GABANTXO, IRATXE LANDETA,  
PEDRO OTXOA, M<sup>o</sup> ANTONIA GINER,  
ADORACIÓN DE LA FUENTEren eta Gizarte-  
Hezkuntza Mahaian parte hartu duten pertsona  
guztien laguntzarekin.

**Argitaratzailea:** EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.  
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. Gizartekintza Saila.  
EUDEL. Euskadiko Udalen Elkarte.

**Diseinua eta maketazioa:** Estudio de Diseño BIGRAFI.

**Imprimaketa:** Gráficas BERRIZ.

**Argitaraldia:** 2003ko Martxo.

**Ale-kopurua:** 10.000 ereduzko.

**L.G.:** BI-491-03

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>7</b>
1.1. PROGRAMAREN AURKEZPENA	9
1.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLARA EZ AGERTZEA: GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARAZOA	9
1.3. KARIAK	11
1.4. ARAZO HONEN HELMENA BIZKAIAN	12
1.5. ARAZO HONETAN SARTUTA DAUDEN ERAKUNDEEN ESKU-HARTZE KOORDINATU BATEN BEHARRA	14
<b>2. LEGEZKO MARKOA</b>	<b>15</b>
2.1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA: ESKOLATZEA ETA ESKOLARATU BEHARRA, ETA HURA ERAGINKORRA IZATEKO OINARRIZKO TRESNAK	17
2.2. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA ERAGINKORRA IZAN DADIN SAIATU ETA, ZEHAZKI, ESKOLARAPENIK EZA EZABATU BEHAR DUTEN SUBJEKTUAK	17
2.2.1. Herri Botereak	18
2.2.2. Subjetu pribatuak	20
<b>3. ESKU HARTZEKO PROGRAMA</b>	<b>23</b>
3.1. TERMINOEN DEFINIZIO ERAGINKORRA: ESKOLAGABETZEA, ESKOLARA EZ AGERTZEA ETA ESKOLARATZE IRREGULARRA	25
3.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLARA EZ AGERTZEA EZABATZEKO LORTU BEHARREKO HELBURUAK	26
3.3. ESKU-HARTZEA GIDATZEN DUTEN ABIABURUAK	26

3.4. HAINBAT ERAKUNDEREN JARDUERA	27
3.4.1. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	27
3.4.2. UDALAK	30
3.4.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GIZARTEKINTZA SAILA)	32
3.5. ESKU HARTZEAREN FLUXU-DIAGRAMAK	34
3.5.1. ESKOLARA JOATEN EZ DENEAN	34
3.5.2. ESKOLAGABETZEN DENEAN	35
3.6. PROGRAMAREN IRAUPENA	36
3.7. PROGRAMA EBALUATZEA	36
<b>4. ERANSKINAK</b>	<b>37</b>
4.1. GIZARTE ETA HEZKUNTZA TXOSTENAREN EREDUA	39
4.2. ESKU HARTZEKO PROIEKTUAREN EREDUA	45
4.3. DERIBAZIO-GUTUNEN EREDUAK	46
4.4. ESKOLAGABETZEAREN EDO/ETA ESKOLARA EZ AGERTZEAREN GAINEKO DATUAK ERREGISTRATZEKO ORRIAK	48

# HITZAURREA

Hezkuntza fenomeno unibertsala bihurtu da eta, horrela, funtsezko eskubidea dena betetzea bermatu da. Hori gorabehera, gauza jakina da asko direla era erregularrean ikastetxeetara joaten ez diren adin txikikoak edo, hori baino txarragoa dena, matrikulatu ere egiten ez direnak, horrela pertsona horien garapen pertsonala, akademikoa eta profesionala arrisku argian jarritz.

Hezkuntzaren eskubidea era eragingarrian erabiltzea nahitaezkoa da gizarte batek aurrera egin dadin eta garapena lor dezan; aldi berean, izugarri tresna egokia da gizartearen bereizkeriari eta marjinazioari aurre egiteko. Ondorioz, eskolara ez joatea ez da hezkuntzako arazo hutsa, esparru hori gainditu eta benetako gizarte arazo bihurtzen baita.

Errealitatearen gordina kontuan hartuta Erakunde Publikoek ikusi dugu beharrezkoa dela lankidetzan aritzea hezkuntzako eskubide hori bermatzeko.

Horrela sortu da *“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa: eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzea, Bizkaiko Lurraldean”*. Egitaraua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak eta Eudel, Euskal Udalen Elkarteak egin eta hizpatu dute. Egitarau honen xedea hezkuntza, gizarte eta epaitegietako esparru guztietako profesionalen ahaleginak biltzea da eta aurrearreta-neurriak ezartzen ditu, eta baita jarduteko protokolo adostua abian jartzeko erabakia ere.

Azken finean, erakundeek hezkuntzako eskubidea bermatzeko lan koordinatuan urrats eraginkorra eta eragingarria izatea espero dugu, hain zuzen ere gizarteratzea eta bizitza kalitatearen hobekuntza ekarriko dituen.

Karmelo Sáinz  
de la Maza  
EUDEL-eko Elkarteburua

Ricardo Ansótegui  
Gizartekintzako Foru Diputatua

Ánjeles Iztueta  
Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailburua.



# 1

SARRERA

# 1. SARRERA

## 1.1. PROGRAMAREN AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den programa hau eskolara ez agertze eta eskolagabetzaren arazoa gizarte zein hezkuntza arloak berekin dakartzan arazo bezala aztertuz hasten da. Egon daitezkeen kariei buruz hausnartzen da, helmena Bizkaiko lurraldean, eta arazo honetan sarturik dauden erakundeen arteko esku hartze koordinatuaren beharra jartzen da.

Arazo hau testuingururutzen duen legezko markoa azterturik, hark eskolagabetzea, eskolara ez agertzea eta eskolaratze irregularra terminoak eraginkortasunez behar bezala definitzen jarraituko du.

Gero, eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ezabatzeko lortu beharreko helburuak eta esku hartzeko proposamenak gidatu behar dituzten abiaburuak azalduko ditugu.

Gero, esku hartzen duten erakundeek garatu behar dituzten jarduketak bilduko dira: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak garatu behar dituztenak. Jarduera horien artean sartuta daude dagozkien neurri eta protokoloak.

Hurrengo orrialdeetan sartuta daude haiek era koordinatuan esku hartzeari dagozkion fluxu-diagramak, eta, azkenik, eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen aurka esku hartzeko faseetan erabili ahal diren ereduak erantsita daude.

Programa honek hiru ikasturte iraungo du eta beraren bidez esku hartzen duten erakundeak Bizkaiko lurraldean adin txikiko guztiek derrigorrezko eskolaratze aldian duten eskolaratzeko eskubidea burutzen saiatzen dira.

## 1.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLARA EZ AGERTZEA: GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARAZOA

Hezkuntzarako eskubidea gizarte eboluzionatu eta demokratikoe-kin loturiko eskubidea da.

Nazioarteko erakundeek eta gure lurralde historikoan adinez txikia hezteko eta gizartearen babesteko arloan indarrean dauden legeek horrela aintzatesten duten oinarrizko eskubidea da. Eskubidea, bera erabiltzeko bermea dela bide, sei eta hamasei urte bitartekoen (derrigorrezko eskolaratze eta irakaskuntza epealdia) eskubide-eginbeharra da.

Eskubide hau dela bide, pertsonak osorik gara daitezke eta kultura berengana dezakete, beren fisiko eta psikiko mentsak edo gizarte klase edo taldearen mentsak konpentsa ditzakete eta gizarte egituran aurrera egin dezakete. Era berean, eskubide hau erabilirik, berori betetzen den gizarteak gatazka maila txikiagoa eta gaitasun, lehiakortasun eta ospe handiagoa du, eta, azken batean, hobeto dago.

Testuinguru honen barruan, eskolagabetzeak eta eskolara ez agertzeak hezkuntzarako eskubidea zapaltzen dutela uste da; eta gizarte bazterketarako faktore bihurtzen dira, ukituriko adinez txikien garapen akademikoa eta lanbide garapena eta, hortaz, beren erkidegorapena arriskutan jartzen dute eta gizarte gatazkak gehiagotzen laguntzen dute.

Eskolara ez agertzea orokorrean oso errealitate esanguratsua da urriki gizarteratuta edo baztertuta dauden metropolialdeetan, batez ere etorkinen, etni gutxiengoaren eta familia desegituratuen artean.

Horrela bada, eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea, hezkuntz-arazo larria ezezik, bada gizarte arazo nabarmena ere.

Modu honetara, eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen kontra jardunez gero, alde batetik, hezkuntza-arazoari erantzuna eman behar zaio, adinez txikiak behar bezala garatzekotan edo berriro garatzekotan; eta, aldi berean, gizarte arazoari erantzuna eman behar zaio, depribazioa, arriskua eta gizarte gatazka prebenitu eta, are, ezabatu behar delarik.

Gizarte laguntzan eta hezkuntzan parte hartzen duten erakundeek egunero egiten dutenak, indarrean dauden legeek eta eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen arloan egindako ikerketek ez dute zalantzarik agerian uzten: herri botere guztien esku-harmenak hezkuntzarako eskubidea bermatu behar du. Azpimarratu behar da ezen esku-harmen hau bertan parte hartzen duten erakunde guztien ekintzak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, Foru Aldundien, Udalen, Fiskaltzaren eta abarren ekintzak) koordinatzen baditu bakarrik izango dela eragin-korra eta lortuko duela bere helburua.

Era koordinatuan esku hartzeko programa bat garatu beharra dago. Bertan sartu behar da adinez txikien gai honetako egoerari antzeman eta jarraitzea ahalbidetzen duen erakundeen komunikaziorako eta erregistrorako sistema bati eragin beharra, baita adinez txikiekin eta beraien familiekin edo ikastetxeetako eta bertan parte hartzen duten Udalen eta Aldundien zerbitzuetaiko legezko ordezkariekin jarduteko proiektu zehatzetarako lanak ere; biztanleak arazoaz oharrarazteko kanpainak eta etorkizuneko profesionalen prestakuntzan esku hartzea, baita eskolaga-

betzeari eta baimenez eskolara ez agertze larriari erantzuteko zigorra ekarri behar duten neurrietarainokoak ere.

### 1.3. KARIAK

Eskolara ez agertzeari buruzko azterketek eta itaundu diegun hezkuntzako profesionalek haren kari asko aipatu dituzte. Eskolara agertzen ez direnengan kariotariko batzuk ikus daitezke:

1. **Ingurua ardatz duten kariak:** ikasle bat eskolara ez agertzerara eraman dezaketen berdin taldearen arauak eta baloreak. Gizarte inguru depreibatua, auzo txiro batzuetan gerta daiteken bezala, adibidez, eskolara ez joateko determinatzailea izan daiteke. Era berean, bazterreko talde batzuk sartzeko oztopatzen duten gizarte jarrerak...
2. **Eskola ardatz duten kariak:** metodo indibidualista eta lehiakorrek erabiltzea, haien auzo edo udalerrirapenik eza, irakasle taldeak hitzartu eta bereganaturiko pedagogi proiekturik ez izatea, arraza este-reotipoek ikasle taldeak baldintzatzea, bazterkeriazko dinamika, ikastetxeeko irakasle ezegonkorrek eta abar. Era berean, ikasgela edo eskolaren mailara egokitzeko haurraren gaitasunik eza edo berera egokitzeko eskolarena eta abar. Antolaketa eta koordinazio sistemak, irakasteko jarrera eta estilo ezberdinak, elkarrekin bizitzeko eta ikasteko giroa, geletan eta geletatik kanpo hautemandako giroa. Eskolako kultura, zeinak gizarte, afektibo, estetiko, motoriko, eta abarreko arloen gainetik arlo intelektualari lehentasuna ematen diona.
3. **Familia ardatz duten kariak:** eskolara ez agertzea ekar dezaketen famili faktoreak daude: famili depreibazioa, ekonomi urritasuna, etxebizitzako urritasuna, familiaren baitako harreman gatazkatsuak, toxikomaniak eta arazo elkartuak, prostituzioa, lan mota jakin batzuk (salmenta ibiltaria), mugikortasun geografikoa, delinkuentzia, espe-txean egotea eta abar. Orokorrean, gizarte-ekonomiazko maila, kultur maila, maila akademikoa, familia batzuek seme-alaben ikaske-tengatik duten interesik eza, haien eskolako ikasketari begirako igurikapenak, eskola-baloreen aurreko jarrerak... Gehiegizko babes-keria eta, kontrako muturrean, adinez txikiarekiko axolagabekeria eta zabarkeria edo tratu txarren seinaleak, fisikoenak eta psikikoenak. Famili gertaera garrantzitsuak, eguneroko eta etxeko bizitza egitu-ratzen duen azturarik ez izatea, gurasoen psikologi edo aginpide zail-tasunak, haien osasun-arazoak, adinez txikiek famili gunea antola-tzen eta berari eusten lagundu beharra edo laguntzeko ohitura, adinez txikiak ezkontzea...

4. **Haurra edo gaztea ardatz duten kariak:** autoestimua eskasa, gaitasunik eza sentitzea, ordezkatu edo txarto jota sentitzea, arazo psikologikoak/psikiatrikoak, aurreko ikas-prestakuntza txarra, aurreko emaitza akademiko txarrak, osasun fisiko erkina, irakasleekiko eta tutorearekiko berarekiko sintoni maila txikia, ezarritako arauari erantzutea (aurrenerabeengan eta nerabeengan). Haur eta gazteen aurre-delikuentzia, adinez txikiaren familia arteko jokabideko arazoak.
5. **Beste kari batzuk,** aurrekoak osatu eta, batzuetan, larritzen dituztenak, honakook dira: jeneroen arazoak, neskek ikasi beharrik ez dutelako ustea, eta kultur arazoak. Ijitoek, adibidez, batzuetan baztertzeko dute eskolatzea, haurra taldean familiaren eta taldearen beraren bitartez sozializatu eta gizarteratzeko baliabide nahikoa dutela pentsatzen dutelako.

Kari asko daudela eta, pentsa daiteke ezen erantzunak bakoiztu behar direla eskolara ez agertzea eta eskolagabetzea gainditzeko. Jokabide berean kari ezberdinak (norberarenak, familiarenak, eskolarenak eta gizarterarenak) bateratzen direla eta, berriro eskatu ahal diegu bertan parte hartzen duten erakundeei era koordinatuan jardun dezaten, zertarako-eta kari horiek eragiten dituzten arazoak konpontzeko.

#### 1.4. ARAZO HONEN HELMENA BIZKAIAN

Gure lurralde historikoan ere eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen arazoa gertatzen da.

Ez dago hura sakonean aztertu eta hobeto neurtzen duen azterketarik. Dena den, egon badago arazoa. Izan ere, testuinguru batzuetan (bizitanle baztertuenei dagozkienetan) Hezkuntza-ikuskatzaileek arazo hau ikusten dute. Gainera, arazo honen aurreko hainbat Udalen ekimenak daude, hura gehienbat jasaten duten ikastetxeak ez daude pozik, Aldundiaren Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek eta Zerbitzu Espezializatuek kasu batzuetan zailtasunak dituzte jarduteko, eta legezko aldatetek Fiskaltzaren esku-harmena nahasten dute. Horrek guztiak arazoa erakusten digu, beraren garrantzia eta hezkuntza eremuaren eta gizarte eremuaren eta, are, lege eremuaren arteko elkargune honi benetan eta pre-saz aurre egin beharra.

Gai hau garrantzitsua da eta kontutan hartu behar da. Izan ere, aurki onetsiko den Euskal Gizarterapen Planak bere eskuharmen-eremuen artean hezkuntza-atalaren barruan (hezkuntzari dagokion 5. eremuan) honakook sartzea: eskolatzearen jarraipena eta hobekuntza, hezkuntza-

baliabideak gizartean gehiagotan ustiatzea, ezberdintasunak konpentsatzeko hezkuntza-eremuko baliabideak eta jarduketak hobetzea eta garatzea, eta gizarte eta hezkuntza gunea sendotzea.

Arloon barruan honako helburu hauek daude, besteak beste: derigorrezko mailetan eskolatzea bermatzea eta alde txiroetan eskolara ez agertzeko kasu posibleak detektatzea, irakas-baliabideak gizartean gehiago eta hobeto aprobetxatzen saiatzea, hezkuntza-beharrizan bereziak izan ditzaketen adinez txikiengan haiek goiz detektatzeko sistema indartzea, koordinaziorako sistemak eta lan-moduak hobetzea eta hezkuntza osatzea beharrezko duten pertsonen osoko arreta etengabea ematea.

Aipatutako planaren jarraipen-adierazkarien artean honakook azpimarra ditzagun: eskolara ez agertzea ezabatzeko eta ebaluatzeko programa zehatza abian jartzea, laguntza osagarrien eraginkortasunari eta alkantzuari buruzko azterketa bat egitea eta haiek zabaltzea, hezkuntza-beharrizan bereziak detektatzeko epeen jarraipena eta hobekuntza, eta toki eremuan oinarritzko koordinazio mekanismoak diseinatzea eta taldean lan egiteko gidalerroak ezartzea.

Antzeko zerbait esan du Arartekoak (2001) hezkuntza-beharrizan berezietarako erantzunari buruzko bere txostenean. Berak honakoa gomendatu du: gizartean baztertutako ikasleentzako erantzunak garatzea, besteak beste, eskolara ez agertzearekiko erantzuna; baztertutako ikasleak goiz hezteari lehentasuna ematea; bereziki baztertutako ikaslerik gehien duen ikastetxeei baliabide gehiago esleitzea eta, hortaz, haiek positiboki baztertea; hezkuntza-zerbitzuen eta bestelako zerbitzuen arteko koordinazioa.

Neurri eta gomendio horiek guztiak, edozein esku-harmen eta, are gehiago, eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen aurka era koordinatuan eta eraginkortasunez esku hartu gura den edozein esku-harmen gauzatu aurretik bi termino horiek adostasunez eta behar besteko eraginkortasunez definitu behar dira: eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea. Horrela bakarrik bermatu ahal dugu ezen guztiok egoera berberetz ari garela eta egoera berberetan gainean dihardugula. Horrela bakarrik bildu eta baloratu ahalko dugu informazioa arazo honen neurriak zehaztasunez ezagutzeko moduan, eta, modu horretara, beharrezko neurriak hartu eta beraien emaitzak ebaluatu ahalko ditugu haien hobekuntza bideratzeko, honakoa lortu arte: hezkuntzarako eskubidea eskubide bete izatea, gure erkidegoko adinez txiki guztien bizitzan errealitate bat izatea.

## 1.5. ARAZO HONETAN SARTUTA DAUDEN ERAKUNDEEN ESKUHARTZE KOORDINATU BATEN BEHARRA

Eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea batzuetan lege-arloan sartzen den eta mota ezberdinetako kariekin loturik dagoen hezkuntza eta gizarte arazoa da: norberaren, familiaren, eskolaren, gizartearen eta abarren kariekin loturik dagoena. Arazo horren aurrean hainbat Administraziook ematen dituzten erantzun partzialak ez dira nahikoak.

Koordinazioa ezinbestekoa da gure erkidegoarentzat beharrezko eta premiazko helburu handinahia lortzeko, gure erkidegoak hura iristeko gogoia eta aukerak baititu: hezkuntzarako eskubidea bermatzea.

Gai honetako koordinazioa, ezinbestekoa izateaz gain, legeak agintzen duena eta, hortaz, derrigorrezkoa da, "legezko marko" aren atalean behar bezala azaldu den moduan. Programa hau helburu bereberetan sarturik dauden erakunde guztien arteko koordinazio-bideak hobetzen eta sistematizatzen saiatzen da, eta xede hori hezkuntza eskubidea benetan bermatzea besterik ez da.



# 2

## LEGEZKO MARKOA

## 2. LEGEZKO MARKOA

### 2.1. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA: ESKOLATZEA ETA ESKOLARATU BEHARRA, ETA HURA ERAGINKORRA IZATEKO OINARRIZKO TRESNAK

– Hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan aintzatesti eta Hezkuntzarako Eskubidea araupetu duen Lege Organikoak gero garatutako pertsonaren oinarrizko eskubideetako bat da.

– Eskubide hau erabiltzea bermatzeko, herri botereek mekanismo batzuk ezarri behar dituzte, aurretik aipatutako artikuluan adierazita daudenak: irakaskuntzaren programazio orokorra, ukituriko sektore guztien partaidetza eraginkorra, irakaslekuak sortzea eta oinarrizko irakaskuntza derrigorrezko eta doako bezala zehaztea.

– Hezkuntza Sistema Orokorrean Antolatzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk, lehen hezkuntzak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzak oinarrizko irakaskuntza osatzen dute. Irakaskuntza horrek hamar urteko eskolatzeari hartuko du barnean, sei urterekin hasi eta hamaseirekin bukatuko dena. Artikulu horretan bertan berriro bilduta dago oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa izango delako konstituzio-abiaburua. Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Legearen 9. artikuluan lehenengo gutzia baieztatuta gelditzen da.

– Unibertsitateak ez diren Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Ikastetxeetako Ikasleen Eskubide eta Eginbeharrei buruzko Dekretuaren 21. artikuluan aipatuta dagoenari jarraiki, ikasketa ikasleen oinarrizko eginbeharra da eta eginbehar orokor horrek hainbat betebeharrak ditu zehazpide. Beraien artean lehenengo bezala honakoa ageri da: "eskolara joatea, eskola-egutegian hitzartutako jardueretan parte hartzea eta ezarritako ordutegiak errespetatzea".

– Aurreko testuek nabaritzen dutenez, ezinbestekoa da eskolara joan beharra, oinarrizko irakaskuntzaren derrigorrezkotasunaren gaineko erregelaren ondorioz. Gainera, hori lehenengo ageripide du hezkuntzarako konstituzio-eskubideak.

### 2.2. HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA ERAGINKORRA IZAN DADIN SAIATU ETA, ZEHAZKI, ESKOLARAPENIK EZA EZABATU BEHAR DUTEN SUBJEKTUAK

Atal honetan aztertutako daude herri erakundeen eskumenak eta erakunde eskudun bakoitzak gaiko politikak eraginkorrak izateko lankide-

tzan jarduteko duen eginbeharra. Halaber, agerian jarriko dira adinez txikien legezko ordezkarien eginbeharra, adinez txikiak babesteko neurriak eta, zenbait kasutan, eginbehar hori betetzea, legezko ordezkarien euren gizarterapeneko elementuetako bat den aldetik.

### 2.2.1. Herri botereak

Hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasun osoa herri botereen ororen erantzunkizuna da, Konstituzioaren I. tituluko II. kapituluan aintzatetsitako gainerako eskubide eta askatasunak bermatzea den bezala, haren 53.1 artikuluan aipatuta dagoenaren arabera. Haren 27.5 artikuluan adostasunez aipatuta dagoenarekin bat etorririk, herri botereek guztion hezkuntzarako eskubidea bermatu behar dute. Eskubide hau bermatzeko erantzukizuna herri botere guztiek dute. Eskolara ez agertzearen arazoa zuzentzea haiei guztiei doakie, hezkuntzarako eskubidea benetan eraginkorra izatekotan.

Horrek ez du esan gura erantzukizun maila berbera denik, ezta eraxkipenen edo eskumenen maila berdina denik ere. Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearekin bat etorririk, "hezkuntzarako eskubidea benetan burutzea bermatzen duten neurriak hartzea" dagokie "Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko herri botereei, beren eskumenen eremuan" (5. artikulua). Euskal Herriko botereak bertako Legebiltzarra, Jaurlaritza eta Lehendakaria dira, Autonomi Estatutuaren 24. artikulua- ren arabera. Horrela, hezkuntzarako eskubidea bermatzeko azken erantzunkizuna eta eskumen nagusia Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioari dagokio, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari alegia. Ildo beretik, HSAGOL Legearen 1.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorririk, "Hezkuntza Administrazio" ek dute eskubide horren erabilpena bermatu beharra. Hezkuntza Administrazioari dagokio eskolara ez agertzea zuzentzea eta eskolatze osoa bide orokorretik ekartzen duten politikak onetsi eta aplikatzeko erantzunkizuna.

Baina politika horiek aplikatzeko erantzunkizuna ez du Hezkuntza Administrazioak bakarrik. Legeak Toki Administrazioei funtzio osagarria edo lankidetzafuntzioa eman die ageriko moduan. Zehazki, Toki Araubideko Oinarriak araupeturik dituen Legearen 25. artikulua- ren 2. paragrafoko n) idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorririk, Udalerriak eskumenak beteko ditu, edozein kasutan, gaietan, Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako legerian ezarritako eran; zehazki, "irakaskuntzaren programazioan parte hartuko du eta ikastetxe publikoak sortzeko eta erai- kitzeko eta beraiei eusteko lankidetzan arituko da Hezkuntza Administra-

zioarekin, haien kudeaketarako organoetan esku hartu eta derrigorrezko eskolatzea betearazten parte hartuko duelarik”.

Aurrekoa hezkuntzarako eskubidea eraginkorra izateko guztien baterako ekintzari dagokiona da. Eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen arazoa hartzen da beste maila batetik ere, adinez txikiaren egoera pertsonalarenetik alegia, non herri esku-harmenak beste batzuk diren. Adinez txikiaren babesari buruzko legeriarekin bat etorririk, Herri Administrazioek adinez txikiei beren eskubideak benetan erabiltzeko laguntza egokia eman behar diete (Adinez Txikiaren Lege Babesari buruzko Lege Organikoaren 10.1 artikulua); eta haien garapen pertsonal eta sozialari kalte egiten dioten arrisku-egoerak prebenitu eta konpondu behar dituzte, eta haien tutoretza izan behar dute babesik ezeko kasuetan (12., 17. eta 18. artikulua). Zalantza barik, arrisku-egoera horietarik bi eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea dira, legezko xedapen beraren 13.2 artikuluan aipatuta dagoen bezala. Izan ere, bertan xedatuta dagoenez, “ adinez txiki bat eskolatuta ez dagoela edo derrigorrezko hezkuntza-epeldian justifikaziorik gabe ikastetxeratu ez ohi dela dakiten pertsonak edo agintariek herri agintaritzaren eskudunei jakinarazi beharko diete, hura eskolaratzeko beharrezko neurriak har ditzaten”.

Dena dela, arrisku-egoerak suposatzen duen desbabesak intensitate-maila desberdinak aurkez ditzake, eta hauen arabera, desbabesa sailka daiteke, desbabesa arina edo moderatua eta desbabesa larria bezala. Adinez txikiak egon daitezkeen arrisku-egoera hauei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta EUDelen artean 2001eko otsailaren 8an sinatutako Erakundearen arteko Akordioak zerbitzu sozialen eginkizunak zehazten dituen uztailaren 30eko 115/2001 Dekretuaren oinarriak jarri zituen. Dekretu honetan zerbitzu publikoen eskuhartzea bi mailetan banatzen ditu: 1) Lehen mailako eskuhartzea, Oinarritzako Gizarte Zerbitzuetatik, desbabesa arina edo moduratuen kasuetan; eta 2) Zerbitzu Espezialitatuetatik eskuhartzea, desbabesa larrien kasuetan.

Modu horretara, adinez txikiak babesteko arloan eskumenak dituzten herri botereek legez esku hartu beharko dute horrelakoetan, Hezkuntza Administrazioari doakion bide orokorretik ez, ukituriko adinez txikiaren garapen pertsonalari kalte egin diezaioketen banakako egoeretan jarduteko bide berezitik baizik. Horretarako, ahal zabalara eman zaie “ arrisku-egoera txikitzeko jarduketara egokiak abian” jar ditzaten edo, egoera horrek babesik ez ikarritz gero, babesik ezeko adinez txikiaren zaintza eta tutoretza berengana dezaten (aipatutako legearen 17. eta 18. artikulua). Gure Autonomia Erkidegoan eskumen horiek Foru Aldundiei eratziki zaizkie haien alderdi erabakigarri eta betearazgarrietan Lurralde

Historikoetako gure legeriari jarraiki (azaroaren 25eko 27/1983 Legea); eskumenen banaketari buruz arestian aipaturikoa ezeztatu gabe, adinez txikiaren aldeko neurriak betearazteko eta haren interesa orokorrean defendatzeko alderdiak Fiskaltzari dagozkio, arautegi erkidearen arabera.

Aurreko guztiak erakusten digunez, eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen arazoa Hezkuntza Administrazioari dagokio, hezkuntzarako eskubidea guztiz eraginkorra izateko eragozpenak kentzea zeregin baitu. Izan ere, Administrazio hori da eskubide honen bermatzailea. Baina arazo hori Toki Administrazioari erakundeei ere dagokie, legeak hala aginduta haren lankidetzan jardun behar baitute, Foru Aldundiari adinez txikia arrisku larrian edo babesik gabeko egoeran aurkitzen bada, eta Fiskaltzari. Arazoa doakien eta eskumenak osagarri dituzten herri botereak gain jartzen dira eta, horregatik, era koordinatuan esku hartu behar dute, Konstituzioaren 103. artikulua arabera Herri Administrazio osoaren jarduketan nagusi izan behar duen koordinazio-abiaburuarekin bat etorriarik, zertarako-eta konstituzio-manu horretan aipatuta dagoen eraginkortasun-abiaburua betetzeko.

Koordinazio horrek, lehenik, erakunde bakoitzak behar duen informazioa ematea izan behar du helburu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 4.1 artikuluan xedatuta dagoen bezala. Baina lankidetzari-abiaburua, haren 3.2 artikuluan aipatuta dagoena, ez da bertan agortzen. Arau horrek xedaturik duen bezala, herri erakunde guztiek honakoa eman behar diete gainerakoei, beren eremuan: " beste Administrazioek beren eskumenak eraginkortasunez burutzeko bildu ahal duten lankidetzari eta laguntzari aktiboak ". Eta, abiaburuari hertsikiago lotuta, aipatutako 3.2 artikuluan adierazita dagoen bezala, haiek guztiek " beren eskumenak betetzeko, bertan sarturiko herri interes guztiak eta, zehazki, beste Administrazioek kudeatu behar dituztenak haztatu " behar dituzte. Beren eskumenak erabiltzeak ez du erakunde edo organo bakoitzaren xedekak lortzea bakarrik izan behar helburu; legeak hala agintzen duelako, eskumen horiek gainera gainerako erakundeei eratzikitako xedekak lortzea errazteko moduan erabili behar dira. Are gehiago, baldin eta Konstituzioaren 53. artikulua arabera herri botere guztiak lotesten dituen funtsezko eskubideetarikoa batez ari bagara zuzenean, lehen aipatu dugun bezala.

### 2.2.2. Subjektu pribatuak

Bistan denez, herri botereak bakarrik ez dituzte adinez txikiaren hezkuntzarako eskubidea eta egin beharra bermatu behar. Lehenik, haien gurasoak (eta, horien ezean, haien tutoreak edo zaintzaileak) daude, gurasoen ahalgoa dutenak. Ahalgo hori dela eta, " haiek zaindu, berekin

izan, elikatu eta hezi eta beraiei osoko heziketa eman” beharra dute, Kode Zibilaren 154. artikuluan aipatuta dagoenari jarraiki. Herri botereek “gurasoei, tutoreei edo zaintzaileei beren erantzunkizunak ondo gararazi” behar dizkiete (Adinez Txikiaren Babesari buruzko Lege Organikoaren 12.1 artikulua). Erantzunkizun horietariko bat beren seme-alaba adinez txikiak eskolatu eta beraiek ikastetxera erregularitasunez joatera behar-zea da, gorago aipatutako lege horren 13. artikuluan berretsita dagoen bezala.

Haiek eginbehar horiek betetzen ez badituzte, neurri asko har ditzake adinez txikia babesteaz arduratzen den agintaritzak. Ikusi dugun bezala, legeria horrek ez du haien edukia oso zehazturik: ahalmenekotasun marjina handia eratziki du arrisku-egoera zuzentzeko egokiak diren neurriak har daitezten. Zalantzarik gabe, azkena da adinez txikiaren tutoretza bereganatzekoa, gurasoen ahalgoaren gaineko bere garrantziagatik, baina, egia esan, ez dago galarazita: haren hezkuntzarako eskubidea bermatzeko beste erarik ez balego, hartu egingo litzateke.

Adinez txikiak eurak, beren aldetik, beren hezkuntzarako eskubideak berak behartuta daude, halaber, gezurra dirudien arren. Izan ere, eskubide hori ez da ahalgoz erabiltzekoa, pertsoneri eratzikitako gehienak bezala, baizik eta eskubide-eginbeharra, oinarritzko irakaskuntzari begira bederen. Konstituzioak eskubide-eginbehar hori derrigorrezko eskolatze-adineko adinez txiki bakoitzari eratziki dio bere onerako, baita, neurri berean, gizarte osoaren onerako ere. Egin-eginean, hiritar guztiei politika, ekonomi, kultur eta gizarte bizitzan parte hartzea errazteko konstituzio-helburua (9.2 artikulua) Konstituzio osoa inspiratzen duen askatasun, justizi eta berdintasun balore nagusien agerpideetako bat da (1. artikulua). Horrekin lotzen da eskolara joan beharra, Ikasleen Eskubide eta Eginbeharrei buruzko Dekretutik lehenago atera duguna. Berari dago-kionez, egungo lege-sistematik aztertu behar dira, adinez txikia babes-teko helburu argiz, eginbehar hau betetzen ez dutenek (aurrenerabeek eta nerabeek normalean) jasan ditzaketan ondorioak.



# 3

## ESKU HARTZEKO PROGRAMA

### 3. ESKU HARTZEKO PROGRAMA

#### 3.1. TERMINOEN DEFINIZIO ERAGINKORRA: ESKOLAGABETZEA, ESKOLARA EZ AGERTZEA ETA ESKOLARATZE IRREGULARRA

Arazo honi egokiro ekiteko, honako kontzeptuok definitu beharko lirateke eraginkortasunez: eskolagabetzea, eskolara ez agertzea eta eskolaratze irregularra.

– **ESKOLAGABETZEA:** ezein ikastetxetan matrikulatu ez diren derrigorrezko eskolatze-adineko adinez txikien egoera (6 eta 16 urte bitarteko adina dutenean) da. Kontzeptu honetan sartuko da matrikulatuta dauden baina justifikatu gabeko eskolarapenik ezen %100 burutzen duten adinez txikien egoera ere.

– **ESKOLARA EZ AGERTZEA:** eskolara ez agertzeaz hitz egiten dugunean, kari justifikagarririk gabe ikastetxera ez joate etengabeaz ari gara, baldin eta familiak berak baimendu edo bultzatzen badu, edo ikasleak berak ikastetxera ez joateko gogorik badu aurrereabean eta nerabeen kasuan. Eskolatzea derrigorrezkoa da 6 urteetatik aurrera. Alabaina, EHAEn 3 urtetik aurrera eskolatzea orokortuta dago eta eskolara ez agertzearen kontzeptua ikasleak matrikulatuta dauden Haur Hezkuntzako 2. ziklotik ezberdintasunak konpentsatu eta saihestu nahian aplikatuko da. Horregatik, eskolara ez agertzea Derrigorrezko Irakaskuntzan edo Haur Hezkuntzan (azken kasu honetan, datuak Fiskaltzari ez zaizkio bidaliko, jarduerako protokoloetan ikusiko den bezala, eta erabilerak adin honetatik eskolaratzea bultzatzea izango du helburu bakarra gizartean behartsua den biztanleriaren kasuetan bereziki) gertatzen denean esku hartzeko era ezberdina izango da. Kontzeptu honen definizio eraginkorrean bi termino bereiziko dira:

- **Eskolara ez agertzearen tasa:** eskolara ez joateen kopuru posiblearen gaineko txikarren ehunekoa da. Proposatu gura den programa-rekin bat etorririk, eskolara ez agertzea hilean justifikaziorik gabe %20 txikar egitea izango da. Honelaxe konputatuko da: txikarra egitea eskola-saio osora ez joatea izango da eta, goizez edo arratsaldez bakarrik egiten bada saseskola, txikar erdia kontabilizatuko da.
- **Eskolara ez agertzearen indizea:** ikastetxeko ikasle guztietatik eskolara agertzen ez diren ikasleen ehunekoa da. Indize hori hezkuntza-etapaka lortuko da. Datu honek indize altuko ikastetxeetan era diferentzialean jarduteko balio izan ahalko du.

– **ESKOLARATZE IRREGULARRA:** justifikatu gabeko txikarren ehunekoa, aurretik azaldutakoa baino txikiagoa (%20 hilabetean).

### 3.2. ESKOLAGABETZEA ETA ESKOLARA EZ AGERTZEA EZABATZeko LORTU BEHARREKO HELBURUAK

– Derrigorrezko eskolatzeko adineko adinez txikien hezkuntzarako eskubidea bermatzea, eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea saihestuz.

– Baztertuta dauden gizarte inguruetatik datozen familiei 3-6 urteko adinez txikiak eskolatu eragitea.

– Familien eskariei lehenetasuna ematea eta lehenestea, baldin eta haien helburua beren 3na urtetik beherako seme-alabak Haur lkastetxeetan sartzea bada.

– Bertan sarturik dauden profesionalak, gizartea orokorrean eta, zehazki, bertan zuzenean sarturikoak gai honen larritasunaz oharraraztea.

– Bertan sarturik dauden erakundeek (Justizi, Enplegu eta Segurtasun Sailak; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak; Udalek; Bizkaiko Foru Aldundiak; eta Fiskaltzak) eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen aurka prebenitu eta esku hartzeko lanean jardutea, era koordinatuan.

– Eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen egoera eta abian jartzen diren esku-harmenak ebaluatzea.

### 3.3. ESKU-HARTZEA GIDATZEN DUTEN ABIABURUAK

– **Prebentzioa:** prebentziosko neurriak lehenetsiko dira erreaktiboan aurrean. Kariak behar bezala aztertuko dira eta, horrela, eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea ekartzen dutenak ezabatu ahalko dira.

– **Konpentsazioa:** abiapuntutiko ezberdintasunik (banakakorik, taldekakorik, erkidegokakorik) badago eta oinarriko elementuetan gabetasunik badago, batez ere bizitzaren etapa goiztiarretan eragina duten erantzun piz eta aberasgarriekin konpentsatu beharra egongo da.

– **Koordinazioa:** erakunde arduradunek era koordinatuan hartu behar dute esku.

– **Bizkor-malgutasuna:** hartzen diren neurriak eta prozedurak bizkorrak izatea eta burokraziak ekarri ahal dituen disfuntzioetan erori barik nahirikako ondorea lortzea beharrezkoa da.

– **Jarraipen-ebaluazioa:** hartu eta abian jartzen diren neurri guztiei jarraituko diete eta beraiek ebaluatuko dituzte, batera, bertan sarturik dauden aldeek, nahirikako helburuak lortzen diren ikusteko eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak jartzeko.

– **Aukerak eta ongizatea garatzea:** aurrera egingo da, oinarriko beharizanei erantzun eta arazoak konponduta, ongi izateko aukera handiagoak garatzeko bidean.

### 3.4. HAINBAT ERAKUNDEREN JARDUERA

#### 3.4.1. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

##### IKASTETXEAK

##### Curriculum eta antolakuntza-neurriak

- Ikastetxeko proiektuen barruan eskolara ez agertzearen aurkako programak garatzea bultzatzea. Eskola-jarduerak erakargarriago egiteko bidean lan egitea.
- Talde edo gelaren barruan laguntzak antolatzea, ikasleei egokitzea erraztekoak.
- Eskolara agertzen ez diren adinez txikientzako banakako arretako neurri zehatzak ezartzea, haiei izan ditzaketen ikas- edo egokitzapen-hutsuneak gainditzin laguntzen dietenak.
- Eskolara ez agertzeari jaramon egitea aholkularien (Lehen Hezkuntza) eta orientatzaileen (Bigarren Hezkuntza) lan garrantzitsu bezala finkatzea.

##### Eskolara agertzen ez direnen kasuak detektatzen direnean jarraitu behar den protokoloa

- Ikastetxeko Zuzendaritzak, ikasturtearen hasieran, bilerarako deialdia egingo die Oinarriko Gizarte Zerbitzuei edo Udalak zehazten duen beste talde bati.

- Lehenengo Hezkuntzako ikasleen kasuan, tutorea, ikasleak justifikaziorik gabe lehenengo txikarra egiten duenean, familiarekin edo legezko ordezkariekin harremanetan jarriko da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen kasuan, tutoreak ikasleak justifikaziorik gabe lehenengo txikarra egiten duenean, aipaturiko ikaslearekin elkarriketa pertsonala izango du, jarrera hori saihesteko eta zuzentzeko asmoz. Falta berriro gertatuz gero, tutorea familiarekin edo legezko ordezkariekin harremanetan jarriko da.
- Tutoreak familiarekin edo legezko ordezkariekin hitz egiterik lortzen ez badu eta arazoak irauten badu, ikastetxeko Zuzendaritzak gutun bat bidaliko die, jaso izanaren adierazpenarekin batera. Bertan arazoa azaldu eta hitzordu baterako dei egingo die. Jarduketa hori tutoreak esku hartu eta hamabost egunetara burutuko da.
- Ikastetxeko Zuzendaritzak ere erantzunik jasotzen ez badu, erantzunik ez hori Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei edo Udal bakoitzak zehazten duen taldeari jakinaraziko zaie, dagokion gizarte eta hezkuntza txostenaren bitartez. Jarduketa arazoari antzeman zaion lehenengo hilaren barruan burutuko da.
- Ikastetxeko Zuzendaritzak udal bakoitzak izendatuko duen pertsonarekin batera, dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin edo Udal Zerbitzuarekin batera esku hartzearen jarraipena egiteko erantzunkizuna hartuko du.
- Ikastetxeko Zuzendaritzak hurrengo hilaren lehenengo astean honako hau bidaliko du Udaletxera eta Hezkuntza Ikuskaritzara: eskolara ez agertzearen tasa gainditu duten ikasleen zerrenda eta ikastetxearen eskolagabetze indizea, hala nola ikastetxean atzemandako eskolatu gabeen kasuak ere.

## LURRALDE ESKUORDETZA

- Ikuskatzailetzako Burutzak ikastetxeei eskolagabetzearen eta eskolara ez agertzearen gaineko datuak biltzeko jarduketako protokoloa bidaltzea.
- Ahal den neurrian Udalek bidalitako zerrenden arabera egiaztatzea ezen derrigorrezko eskolatzeko adina duten adinez txikiak ikastetxean matrikulaturik daudela.

- Eskolagabetzeari eta eskolara ez agertzeari buruzko ikasturte hasierako informazio-bilerak. Zonaka ikastetxeen zuzendaritzako taldeekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen edo Udal bakoitzak zehazten dituen taldeen arduradunekin eta bereziki ukituriko ikastetxeetako klaustroarekin.
- Berritzeguneetakoek ikastetxeei eskolara ez agertzearen aurka borrokatzeko programa diferentzialak diseinatzeko eta programotan (egokitzapenik eza, ijitoen kultura, arrisku-egoerak, tratu txarrak...) parte hartzen duten irakasleentzat prestakuntza-plan zehatza egiteko aholkularitza ematea.
- Lurralde-eskuordeak Fiskaltzari eskolara agertzen ez diren edo eskolagabetuta dauden adinez txikien zerrenda agirizatua bidaltzea, beharrezko diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo Udal Zerbitzuek berari bidali ondoren, Kode Zibilaren 158. artikulua 3. puntuari dagokion Fiskaltzaren esku hartzea eskatuz.

## HEZKUNTZA SAILBURUORDETZA

- Hezkuntzarako eskubidea gogorarazten duten publizitate-kanpainak egitea, eskolara ez agertzea aztertzeaz arduratzen den Batzordean ordezkaturata dauden gainerako erakundeekin batera.
- Ikasturte hasierako Ebazpenean kapitulu zehatza sartzea, hezkuntzarako eskubideari eta ikasleen txikar justifikatugabeak jaso eta Udalari eta Hezkuntza Ikuskatzailetzari eskualdatu beharri buruzkoa.
- Eskolara joatearen derrigorrezkotasuna eta familien bere betebeharraren ardura biltzen duen agiria egitea. Agiri hau aurrematrikularen agiriarekin batera ikastetxean emango da.
- Egoera sozial eta kultural behartsuarekin erlazionaturik dauden eta eskolara agertzen ez diren adinez txikiei laguntzeko neurri zehatzak sustatzea, ikastetxean integrazio normala bultzatzeko asmoz.
- Udalekin elkarlanean eskolaz kanpoko jarduerak egitea piztea.
- Haur Hezkuntzan eskolatzea piztea, eskolara ez agertzea agertzeko arrisku handiagoa duten familietan bereziki.

### 3.4.2. UDALAK

#### Prebentziozko neurriak

- Eskolak berekin ekartzen dituen abantailen, eskolaratu beharraren eta matrikulatzeko daten aurretiko epealdian udalerrian dauden ikastetxeen berri familiei jakinaraztea.
- Eskolatuta dauden adinez txikiak dituzten familiei eskolatzeari eusteko erantzukizunaren, eskolara joatearen derrigorrezkotasunaren eta Udalak familiekin berauen seme-alabak eskolara ez agertzea saihesteko lankidetzan jarduteko dituen zerbitzuen berri ematea, urtero.

#### Eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea detektatzeko neurriak

- Udal Zerbitzuek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari urtero bidaliko diote derrigorrezko eskolatzeko adina (6na urte) duten adinez txikien zerrenda, zertarako-eta haien eskolatztea egiaztatzeko.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo, hala denean, dagokien Udal Zerbitzuek, jarduketa-arau bat egingo dute. Bertan sartuko da, jaramon egiten zaien familia guztien gizarte historiari buruzko informazioan, haien seme-alaben eskolatzearen gaineko datu egiaztatua.
- Udaltzaingoak bere jarduketako protokoloen artean identifikatu beharko ditu eskola-orduan ikastetxetik kanpo ikusten dituen adinez txikiak. Informazio hori Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei edo, hala denean, dagokien Udal Zerbitzuei eskualdatuko zaie.

#### Eskolagabetzea eta eskolara ez agertzea gertatzen denean Udal Zerbitzuek esku hartzea

##### A) Antolakuntza

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen edo, hala denean, dagokien Udal Zerbitzuen Zuzendaritzak Lurraldeko Hezkuntza Eskuordetzaren eskaerei jaramon egingo die ikastetxearen zuzendaritzako taldeekin proposatzen diren informazio-jarduera guztietan. Era berean, Ikastetxea eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen edo, hala denean, dagokien Udal Zerbitzuen arteko eskuhartzearen jarraipena egingo du.

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo, hala denean, dagokien Udal Zerbitzuek hala denean dagozkion gizarte-langilea eta eskola-bitartekoa zehaztu eta jakinaraziko dizkiote ikastetxe bakoitzari.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek oinarrizko errenta jasotzen duten familiekin ezartzen diren gizarterapen-hitzarmenetan honako helburu hau sartuko dute lehentasunezko helburu bezala: adinez txikien eskolatzeko eta eskolaratzeko eskubidea betetzea lortzea.

## B) Udal jarduketako protokoloa

1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo dagokien Udal Zerbitzuek eskola-gabeturiko adinez txikirik detektatuz gero, edo dagokion ikastetxeak horrelakorik bidaltzen badu, familiari edo legezko ordezkariari biltzeko deia egingo zaie jaso izanaren adierazpenarekin, egoera baloratuko da, esku hartuko da eta, eskolatzeko esku hartzeak arrakastarik ez badu, horren berri emango zaio Bizkaiko Foru Aldundiaren Haur Zerbitzuari, babesik ezeko edo babesik ez larriko egoerarik nabaritzuz gero. Bestela, Hezkuntza Eskuordetzari emango zaio horren berri.
2. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskolara agertzen ez den adinez txikirik detektatuz gero, dagokien gizarte eta hezkuntza txostena egingo dute (4.1. ERANSKINA) eta ikastetxeari bidaliko diote, hura osa eta baterako esku-harmen egokia ezar dezan.
3. Ikastetxeek detektaturiko eskolarapenik ezen kasuei buruz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan edo, hala denean, dagokien Udal Zerbitzuetan jasotako gizarte eta hezkuntza txostenek familiarekiko hitzordurako bide emango dute, jaso izanaren adierazpenarekin, eta gero esku hartuko da.
  - a) Familia edo legezko ordezkariak hitzordura joanez gero, dagokion gizarte-langileak edo Udal Zerbitzuak eskolara ez agertzearen egoera baloratuko du, gizarte eta hezkuntza txostena osatuko du eta, 45 egunekoa baino luzeagoa ez den epean, txostena ikastetxeari bidaliko dio batera esku hartzea ezartzeko proposamen batekin batera.
  - b) Familia edo legezko ordezkariak joaten ez badira edo eskurik hartu ezin bada eta babesik ezeko edo babesik ez larriko egoerarik baloratzen bada, 45 egunekoa baino luzeagoa ez den epean, dagokion gizarte-langileak edo Udal Zerbitzuak txostena Bizkaiko Foru Aldundiko Haur Zerbitzura bidaliko du. Babesik ezeko

egoerarik baloratu ezean, hura Hezkuntza Eskuordetzari bidaliko zaio. Berak Haur Zerbitzutik edo, hala denean, Hezkuntza Eskuordetzatik jasotzen dituen erantzunak ikastetxeari jakinaraziko dizkio.

### 3.4.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (GIZARTEKINTZA SAILA)

#### Prebentziozko neurriak

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin batera, bai Gizarte Zerbitzuen bai Haur Zerbitzuaren jarduketa- eta eskumen-eremuak informatu-zabaltzea, eskola-eremuan.
- Babestuta ez dauden haurren eremuan esku hartzen duten profesionalak gaiaz oharrarazteko eta gaian prestatzeko jarduerak bultzatzea:
  - Ikastaro espezifikoetan parte hartzea.
  - Babesik gabeko haurren egoerak detektatzeko eta jakinarazteko eta horrelakoetan era koordinatuan esku hartzeko prestakuntza jardunean zein prestatzen dabilzan eta bertan sarturik dauden profesionalen prestakuntzan sartzea eskatzea.
  - Babesik gabeko haurren egoerak detektatzea eta jakinaraztea eta horrelakoetan era koordinatuan esku hartzea sustatzeko agiriak diseinatu eta argitaratzea.
- Beste Herri Administrazio batzuekin batera, derrigorrezko eskolatzeko haurren eskolatzeari begirako oharrarazpen-kanpainetan, partehartzea.

#### Haur Zerbitzuak esku hartzea

##### A) Antolakuntza

- Haur Zerbitzuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei aholkularitza eta laguntza emango die, zerbitzuok behar izanez gero.
- Bermatuko du ezen Gizarte Zerbitzuek eta berak babesik ezeko egoerak jasaten dituzten adinez txikiei begira hartutako erabakiak irizpide homogeen eta teknikoki baliozko edo adostuetan oinarrituta daudela.


- Haur Zerbitzuak barneko prozedurarako eskuliburu bat egin eta eza-riko du, funtzioak eta lanak, abiaburuak, irizpideak eta jarduketarako prozedurak zehaztu eta lanerako tresnak eta protokoloak ematen dituena. Halaber, kasuko koordinatzaile bat izendatuko du.
- Espezializaturiko baliabideak adinez txikien beharrianetara egokituko ditu: familiaren baitan esku hartzeko programak garatzea; famili harre-rako baliabideak garatzea eta egokitzea; egoitza-baliabideak egoki-tzea.

## B) Jarduteko protokoloa

- Arrisku larria edo babesik eza egonez gero, Haur Zerbitzuak, kasua jasota, beraren eskumenekoa den ala beste zerbitzu batzuek jaramon egin behar dioten erabakiko du.
- Presazko babes-neurri bat hartzea beharrezkoa izan daitekeen balo-ratzeko, haurra babesik ezeko egoeraren ondorioz jasaten dabilen edo jasan dezakeen kaltearen larritasuna ebaluatuko da, orokorrean honako determinatzaileok dituena:
  - Ahaideen jokaeraren larritasuna, funtsean haren bizitasunetik, maiztasunetik eta iraupenetik datorrena.
  - Babesik ezak haurraren maila fisikoan, ezagutzezkoan, psi-kologikoan edo/eta sozialean eragin dituen edo eragin ditzakeen ondorenak.
  - Haurrak bere burua defendatzeko edo egoera horretatik ihes egiteko duen gaitasuna, hau da, hark bere burua babesteko duen gaitasuna (autodefentsa, kanpo-laguntza eskatzea, lokabetasuna).
- Haur Zerbitzuak haurrarekiko eta familiarekiko esku-harmenak, neu-riak eta baliabideak abian jartzeko beharrezko jarduketak burutuko ditu eta esku hartzeko plan bat hasiko du, non kasu bakoitzarentzat egokiak diren baliabide espezializatuak sartuko diren.
- Haur Zerbitzuak dagokion Oinarriko Gizarte Zerbitzuari jakinaraziko dio egindako esku-harmenen berri.


### 3.5. ESKU HARTZEAREN FLUXU-DIAGRAMAK

#### 3.5.1. ESKOLARA JOATEN EZ DENEAN



*Ofizio bidez jakinaraziko zaio erakunde bidaltzaileari erakunde jasotzaileak egindako jarduketa.*

### 3.5.2. ESKOLAGABETZEN DENEAN



*Ofizio bidez jakinaraziko zaio erakunde bidaltzaileari erakunde jasotzaileak egindako jarduketa.*

### 3.6. PROGRAMAREN IRAUPENA

Hiru urteko iraupena izango du proposatutako helburuak lortzen diren baloratu ahal izateko denbora bezala. Alabaina, programa ebaluatuturik, beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahalko dira.

### 3.7. PROGRAMA EBALUATZEA

Hainbat erakundek adostutako esku-harmenerako programa honi jarraituko zaio eta bera ebaluatuko da. Horrela, helburuak lortzen diren egiaztatuko da eta bertan sartutako erakundeei hobekuntza-arauak emango zaizkie.

Bertan parte hartzen duen erakunde bakoitzaren bi ordezkari osaturiko Batzorde batek egingo du jarraipen-ebaluzioa.

Batzorde hori hiru hilean behin bilduko da, gutxienez, eta urtero emango du txosten bat. Bertan honako alderdiok bilduko dira, besteak beste:

- Eskolara ez agertzearen eta eskolagabetzearen tasaren eta indizearen Bizkaiko lurralde historikoko bilakaera.
- Haur Hezkuntzako etapan eskolatzea bultzatzeko abian jarritako ekintzak.
- Programako parte-hartzaile zuzeneko iritzia (ikastetxeena, dagokien Udal Zerbitzuena eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizartekintza Sailarena).
- Hobetzeko proposamenak.



# 4

ERANSKINAK

# 4. ERANSKINAK

## 4.1. GIZARTE ETA HEZKUNTZA TXOSTENAREN EREDUA

### GIZARTE ETA HEZKUNTZA TXOSTENA

UZek,  ikastetxeak  beste zerbitzu batzuek (zehaztu)

*JAKINARAZITAKO TXOSTENA*

*TXOSTENAREN HASIERA-DATA:*

BERRIKUSPEN-DATA	EGILEA

### 1. IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Tutorearen izena: \_\_\_\_\_

### 2. UDAL ZERBITZUEN DATUAK

Gizarte-langilea: \_\_\_\_\_

### 3. ADINEZ TXIKIAREN DATUAK

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Ikasmaila eta eredu: \_\_\_\_\_

Jaiotze data eta lekua: \_\_\_\_\_

Aitaren eta amaren izena: \_\_\_\_\_

Egoitzaren helbidea (gurasoak bananduta badaude, bi gurasoen helbidea): \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

#### 4. ESKOLARA JOATEAREN MAILA

Erregularitasunez joaten da:  BAI  EZ

Ezezko kasuan txikarren zerrenda agiriaren arabera: \_\_\_\_\_

Puntualtasuna:  BAI  EZ

Aurreko urteetan eskolara joateko arazorik detektatu da:  BAI  EZ

Oharrak: \_\_\_\_\_

#### 5. HIGIENE ETA JANTZI MAILA

Egokia: beti txukun eta egoki jantzita.

Halamoduzkoa: batzuetan zikin eta eguraldiarekin bat ez dato-  
rren jantziarekin.

Eskasa: beti zikin eta txarto jantzita.

Kiratsa dario.

Zorriak, arkakusoak eta abar ditu gorputzean

Osatu gabeko edo txarto osatutako zauriak, egoki zainduta ez dagoelako

Oharrak: \_\_\_\_\_

#### 6. ELIKAPENA

Egokia: ez da desnutrizio-zantzurik detektatzen.

Halamoduzkoa: haurrak batzuetan gosalduta edo erregularitasunez bazkaltzen ez duelako susmoak...

Eskasa: haurraren desnutrizio-zantzuak detektatzen dira.

Oharrak: \_\_\_\_\_

#### 7. LOA

Egokia: ez da lorik ezaren zantzurik detektatzen.

Halamoduzkoa: txarto lo egiten duelako susmoak.

Eskasa: behar beste lo egiten ez duelako zantzuak detektatzen dira (loak hartzen du eskolan, aharrasuta egiten du, erraztasunez, sumintzen da).

Oharrak: \_\_\_\_\_

## 8. OSASUN-ARLOA

- Egokia: ez da haurraren osasun-zainketetan urritasunik detektatzen.
- Eskasa: adinez txikia sukarrarekin joaten eskolara.
- Eskolako irakasleen edo/eta sendagileak entzumen-urritasunei, ikusmen-urritasunei, motrizitate-urritasunei eta abarri buruz esandakoei jaramonik ez egitea.
- Justifikazio logikorik gabe hematoma dituzte: adierazi gorputzaren alde, marka mota, maiztasuna, "haurraren aitzakia".
- Etxeko istripuak errepikatzen dira.
- Ez da gaixotasun arinik ikuskatu edo zaintzen: eztula, konjuntibitisa...

Oharrak: \_\_\_\_\_

## 9. HAURRA DAGOEN IKASMAILA (ADIERAZI ZEIN IKASMAILATAN DAGOEN)

Haren adinarekin bat datorrena:  BAI  EZ

Ikasmaila errepikatu du:  BAI  EZ

Errefortzu-neurriak:  BAI  EZ

Zeintzuk: \_\_\_\_\_

Beharrian bereziak dituen ikaslea da:  BAI  EZ

Curriculum-egokitzapena: Arlo-egokitzapena:  BAI  EZ

Hark curriculum-egokitzapena duen arloak: \_\_\_\_\_

Globala:  BAI  EZ

Banakako arreta:  BAI  EZ

Ikastetxetik kanpoko arreta espezializatua: \_\_\_\_\_

Buru Osasunerako Zentroa

Elkartek

Psikologi Kabinetea

Oharrak: \_\_\_\_\_

## 10. GIZARTERATZEA

### Ikaskideekin:

- Harremanak ditu eskolan:  BAI  EZ
- Harremanak ditu jolasaldian:  BAI  EZ
- Besteek onartzen dute:  BAI  EZ
- Badu lagunik:  BAI  EZ
- Sarritan borrokatu edo haserretzen da:  BAI  EZ

### Irakasleekin:

- Agintzea onartzen ditu:  BAI  EZ
- Helduarekiko menpekotasunik edo haren babesik bilatzen du:  BAI  EZ
- Laguntzarik eskatu edo galdatzen du:  BAI  EZ
- Berehalako arretarik behar du:  BAI  EZ
- Irakasle zehatz bat du maiteena edo harekin komunikazio hobea du:  BAI  EZ

### Ikasgelako jokaera:

- Gelako arauak errespetatzen ditu:  BAI  EZ
- Eskolaren dinamika orokorra eragozten du:  BAI  EZ
- Adierazi zutitzen den, zaratarik egiten duen, irakaslearen lana eteten duen, molestatzen duen..., eta nola \_\_\_\_\_
- Jokabide erasokorrik agertzen du:  BAI  EZ
- Adierazi nola borrokatzen den, iraintzen duen... \_\_\_\_\_
- Eskolako materiala eta tresnak eramaten ditu eskolara:  BAI  EZ
- Eskolan parte hartzen du:  BAI  EZ

### Jantokiko jokaera:

- Arauak errespetatzen ditu:  BAI  EZ
- Lasaitasunez eta erritmo normalean jaten du:  BAI  EZ
- Garbi eta txukun dago:  BAI  EZ

Zutitzen da eta ez da gelditzen:  BAI  EZ

Oharrak: \_\_\_\_\_

## 11. EMOZIO-ALDERDIAK

Jokabide atzeragarririk agertzen du eskolan:  BAI  EZ

Enuresia / Enkopresia / Onikofagia:  BAI  EZ

Antsietaterik agertzen du:  BAI  EZ

Baiezko kasuan, aipatu zeintzuk: izerdia botatzea, dardara, angustia, okadak, urduritasuna, eskolara joatearen beldurra, eskolatik irtetearen beldurra eta abar. \_\_\_\_\_

Honelako itxura du: Abaildu itxura:  BAI  EZ

Tristeza:  BAI  EZ

Bere buruarekiko jokaera atsegin edo kaltegarri du:  BAI  EZ

Haurrak duen adina ikusita arraro den sexu jokabide edo ezagupenik agertzen du:  BAI  EZ

Oharrak: \_\_\_\_\_

## 12. FAMILIAREN ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANAK

Eskolak egiten dituen jardueretan parte hartzen du familiak Bileretan / Berbaldietan / Jaietan:  BAI  EZ

Tutoreek deitzen diotenean joaten da:  BAI  EZ

Nor:  Aita  Ama  Biok  Beste batzuk

Beren seme-alaben eboluzioarekiko interesik agertzen dute:  BAI  EZ

Adierazten zaizkien arauak betetzen dituzte:  BAI  EZ

Eskolari eskaririk egiten dio familiak:  BAI  EZ

Nolakoak: \_\_\_\_\_

Kuotak ordaintzen dituzte:  BAI  EZ

Zeintzuk: garraio, liburuak, jantokia eta abar \_\_\_\_\_

Eskolarekin zorrik izan dute:  BAI  EZ

Familiarekiko harremanetan arazorik egon da:  BAI  EZ

Zeintzuk eta zergatik: \_\_\_\_\_

Ikastetxeak gomendatuta sendagilearekin edo psikologoarekin harremanetan jartzea baztertu dute:  BAI  EZ

Oharrak: \_\_\_\_\_

### 13. FAMILIAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN ARTEKO HARREMANAK

- Oraingoaren aurreko espedienterik gabe
- Jarduneko gizarte historiarekin
- Bukatutako gizarte historiarekin

### 14. GURASOEN EREMU PERTSONALA

### 15. FAMILIAREN LAN ETA EKONOMI ARLOA

### 16. FAMILIAREN OSASUN ETA HIGIENE ARLOA

### 17. ETXEBIZITZA ARLOA

### 18. FAMILI HARREMANAK ETA FAMILI ANTOLAKETA

### 19. IKASTETXEAK EGINDAKO JARDUKETAK (ikus eranskina)

### 20. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK EDO UDAL ZERBITZUAK EGINDAKO JARDUKETAK (ikus eranskina)

### 21. ESKU HARTZEAREN DERIBAZIOKO EDO BUKAERAKO AGIRIA

Kasua noiz eta zein erakunderi bidaltzen zaion eta esku-harmena noiz bukatzen den zehaztuko da.

### ERANSKINA

### 19. IKASTETXEAK EGINDAKO JARDUKETAK

- a) Orain arte egindako jarduketak eta lortutako emaitzak.
- b) Adinez txikiarekin, gurasoekin edo tutoreekin edo beste batzuekin izandako harremanak eta lortutako harremanak.
- c) Deribazio honen bitartez lortu gura diren helburuak.

d) Esku hartzeko proposamenak.

(data eta sinadura)

### ERANSKINA

#### **20. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK EDO UDAL ZERBITZUAK EGINDAKO JARDUKETAK**

- a) Orain arte egindako jarduketak eta lortutako emaitzak.
- b) Adinez txikiarekin, gurasoekin edo tutoreekin edo beste batzuekin izandako harremanak eta lortutako harremanak.
- c) Deribazio honen bitartez lortu gura diren helburuak.
- d) Esku hartzeko proposamenak.

(data eta sinadura)

#### **4.2. ESKU HARTZEKO PROIEKTUAREN EREDUA**

Honako alderdiok agerraraziko diren esku-harmenerako proiektu bat egingo da:

- Lortu gura diren helburuak.
- Egin beharreko jarduerak.
- Epeak.
- Bertan parte hartzen dutenek (famiak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta ikastetxeak) sinaturiko konpromisoak.
- Esku-harmenaren deribazioa edo bukaera.

Deribazioa                       Bukaera

Bidaltzen zaion erakundea: \_\_\_\_\_

Deribazio-data: \_\_\_\_\_ Bukaera-data: \_\_\_\_\_

Deribazioaren edo bukaeraren karia \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

### 4.3. DERIBAZIO-GUTUNEN EREDUAK

#### ESKOLARA AGERTZEN EZ DIREN IKASLEEN GURASO EDO TUTORE- ENGANAKO IKASTETXEKO ZUZENDARIAREN GUTUNAREN EREDUA

Guraso (tutore) agurgarriak:

Zuen seme/alaba, \_\_\_\_\_  
ikaslea, ez da eskolara agertzen.

Guztira \_\_\_\_\_ sasieskola egin d(it)u \_\_\_\_\_ hil  
honetan pasatu den denboran, zuen seme/alabaren tutorea ezin izan da  
zuekin harremanetan jarri eta hark berdin jarraitzen du, eskolara agertu  
barik. Hori guztia dela eta, arazo honi buruz hitz egiteko eta elkarrekin  
konponbide bat bilatzeko ikastetxean \_\_\_\_\_ egunean \_\_\_\_\_ etan  
egitekoa den bilera baterako hitzordua eman gura dizuet.

Gai honi buruz honako manuok gogorarazi gura dizkizuet:

- \* Lehenik, derrigorrezko hezkuntzako etapetan dauden adinez txikien gurasoek edo legezko tutoreek (6 eta 16 urte bitarteko adinez txikienek) adinez txikiak eskolara jarraian eta osasun-, higiene- eta elikapen-baldintza onetan joan daitezen ahaleginak egin beharra.
- \* Eta, bigarrenik, ikastetxeari haien sasieskola guztiak justifikatu beharra, beraien kariak edozer direlarik ere.

Azkenik, jakinarazi gura dizuet ezen, hitzordu honetarako erantzunik ez badut, \_\_\_\_\_ ikastetxeko zuzendari naizen aldetik, arazoa herri honetako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Ikuskatzaitzari azalduko diedala behar diren neurriak har ditzaten.

Beste barik, adeitasunez, agur

Izenpetzailea: \_\_\_\_\_ ikastetxeko zuzendaria.

## IKASTETXEAREN UDALARENGANAKO DERIBAZIOKO GUTUNAREN EREDUA

\_\_\_\_\_ (e)ko Udaleko  
\_\_\_\_\_ zinegotzi agurgarria:

\_\_\_\_\_ (e)ko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak izenpetu duten eta Bizkaiko udalerrietan Eskolagabetzea eta Eskolara Ez Agertzea Ezabatzeko Plana garatu duen akordioari jarraiki,

\_\_\_\_\_ jaun/andreak,  
\_\_\_\_\_ ikastetxeko zuzendari naizen honek,

Ikastetxean behar diren kudeaketak eginda, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ ikaslea eskolara agertzen ez dela edo eskolagabeturik dagoela erakusten duen gizarte eta eskola txostena bidali gura dizut, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo egokiesten dituzun Taldeek esku har dezaten.

Arren eskatu gura dizut, aurretik aipatutako akordioan zehazturik dagoen bezala, ikastetxe honetako Zuzendaritzari eta Hezkuntza Ikuskatzaitzari Udalak arazo honi begira burutzen dituen jarduketan berri jakinarazteko.

Beste barik, adeitasunez, agur

#### 4.4. ESKOLAGABETZEAREN EDO/ETA ESKOLARA EZ AGERTZEAREN GAINEKO DATUAK ERREGISTRATZEKO ORRIAK

### ESKOLAGABETZEAREN HILEROKO ERREGISTROA

(Matrikulaturik ez dauden edo hileroko programatutako 100eko 100 eskoletara joaten ez diren ikasleak)

**IKASTETXEAREN IZENA:** \_\_\_\_\_

**IKASTURTEA:** 2002-2003 **HILA:** \_\_\_\_\_

#### Matrikulaturik ez dauden ikasleak

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeek, iraillean (eta ondorengo hiletan, egoerak iraenez gero) jarraian ageri diren koadroetan jasoko dituzte Bigarren Hezkuntzako ezin ikastetxek eskatu ez dituen espedienteak dituzten ikasleen datuak.

Ikaslearen izena eta abizenak	Jaiotze data	Ikas-malla	Aitaren eta amaren izen-abizenak	Egoltzaren helbidea	Telefonoa	Oharrak

- Ikastetxean matrikulaturik ez dauden eta programatutako 100eko 100 eskoletara joaten ez diren ikasleak

Ikaslearen izena eta abizenak	Jaiotze data	Ikas-malla	Aitaren eta amaren izen-abizenak	Egoltzaren helbidea	Telefonoa	Oharrak

## ESKOLARA EZ AGERTZEAREN HILEROKO ERREGISTROA

(Hilero programatutako 100eko 20 eskolatara edo gehiagotara joaten ez diren ikasleak).

IKASTETXEAREN IZENA: \_\_\_\_\_ HELBIDEA: \_\_\_\_\_

IKASTURTEA: \_\_\_\_\_ HILA: \_\_\_\_\_

Ikaslearen izena eta abizenak	Jaiotze data	Ikas-maila	Aitaren eta amaren izen-abizenak	Egoitzaren helbidea	Telefonoa	Esk. ez ager %etan (1)	Oharrak (2)

(1) Ehuneko hau ezartzeko, EZ dira eskolara ez agertzezat joko JUSTIFIKATUTAKO TXIKARRAK (gaixotasuna, aparteko gertaerak, sasoiakako lanak, kanporatzeak edo beste ikastetxe bateko aldi baterako eskolatzea).

(2) Adierazi, laburki, eskolara ez agertzearen kari posibleak eta ikastetxeak buruturiko jarduketak.



# ESKOLARA EZ AGERTZEAREN HILEROKO ERREGISTROA (Eskolara ez agertzearen indizea)

## **Ikastetxean**

Eskolara agertzen ez diren ikastetxeko ikasleen ehunekoa, bertako ikasle kopuru osoa kontutan harturik.

## **Eta bakoitzean**

Haur Hezkuntzan, eskolara agertzen ez diren etapa horretako ikasleen ehunekoa, Haur Hezkuntzako ikasle kopuru osoa kontutan harturik.

Lehen Hezkuntzan, eskolara agertzen ez diren etapa horretako ikasleen ehunekoa, Lehen Hezkuntzako ikasle kopuru osoa kontutan harturik.

DBHn, eskolara agertzen ez diren etapa horretako ikasleen ehunekoa, DBHko ikasle kopuru osoa kontutan harturik.